



OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

SAILBURUA
CONSEJERO

AGINDUA, OSASUNEKO
SAILBURUARENA, ZEINAREN
BIDEZ ALDATZEN BAITZAI
ERANSKINA, ALDE BATETIK,
OSASUN SAILAREN 2024-2028
ALDIRAKO DIRULAGUNTZEN PLAN
ESTRATEGIKOA ETA, BESTETIK,
2026KO EKITALDIRAKO
DIRULAGUNTZEN URTEKO PLANA
ONARTZEN DITUEN AGINDUARI.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikulua ezarritakoaren arabera, "administrazio publikoetako organoek edo dirulaguntzen ezarpena proposatzen duen edozein erakunde, aldez aurretik, dirulaguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko dituzte berau aplikatzean lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, baita horiek lortzeko epea, aurreikusten diren kostuak eta haiek finantzatzeko iturriak ere; betiere, aurrekontu-egonkortasunaren helburuak beteko direla bermatuta". Agindu hori estatuko oinarritzko legeria da.

Aurrekoa betez, Osasuneko sailburuak 2024ko urtarrilaren 30eko Agindua eman zuen, zeinaren bidez onartzen baita, alde batetik, Osasun Sailaren 2024-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa eta, bestetik, 2024ko ekitaldirako Dirulaguntzen Urteko Plana.

Bestalde, 2025eko otsailaren 7ko Aginduari bidez, Osasuneko sailburuarena, Osasun Sailaren 2025. ekitaldiko dirulaguntzen urteko plana onartu zen (PAS 2025).

ORDEN DEL CONSEJERO DE SALUD, POR LA QUE SE MODIFICA EL ANEXO DE LA ORDEN POR LA QUE SE APRUEBA EL PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES DEL DEPARTAMENTO DE SALUD PARA EL PERIODO 2024-2028, DE UNA PARTE Y SE APRUEBA EL PLAN ANUAL DE SUBVENCIONES DEL EJERCICIO 2026, DE OTRO.

El artículo 8.1 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, establece que "*los órganos de las Administraciones públicas o cualesquiera entes que propongan el establecimiento de subvenciones, con carácter previo, deberán concretar en un plan estratégico de subvenciones los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus fuentes de financiación, supeditándose en todo caso al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria*". Este precepto tiene el carácter de legislación básica del Estado.

En cumplimiento de lo anterior, la Consejera de Salud dictó la Orden de 30 de enero de 2024, de la Consejera de Salud, por la que se aprueba el Plan Estratégico de Subvenciones del Departamento de Salud para el periodo 2024-2028, de una parte y se aprueba el Plan Anual de Subvenciones del ejercicio 2024, de otro.

Por otro lado, por medio de la Orden de 7 de febrero de 2025, del Consejero de Salud, se aprueba el Plan Anual de Subvenciones del Departamento de Salud del ejercicio 2025 (PAS 2025).

Puntu honetan, beharrezkoa da, alde batetik, 2024ko urtarrilaren 30eko Aginduko eranskinean jasotako zenbait alderdi egokitzea eta aldatzea eta eranskinaren testu berria argitaratzea. Agindu horren bidez Osasun Sailaren 2024-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen. Bestalde, ezinbestekoa da 2026. ekitaldiari dagokion Dirulaguntzen Urteko Plana onartzea, eranskin horretako irizpideei eta Euskal Autonomia Erkidegoaren 2026ko aurrekontu orokorretako irizpideei jarraikiz.

Goian adierazitakoa kontuan hartuta, eta 18/2020 Dekretuak eta 319/2024 Dekretuak emandako eskumenak baliatuz (irailaren 6ko 18/2020 Dekretua, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen; urriaren 29ko 319/2024 Dekretua, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena), honako hau

AGINTZEN DUT:

Lehenengoa.— Aldatzea 2024ko urtarrilaren 30eko Aginduaren eranskina (Osasuneko sailburuarena, Osasun Sailaren 2024-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzen duena), agindu honetako eranskinaren edukiarekin.

Bigarrena.— Osasun Sailaren 2026ko ekitaldirako Dirulaguntzen Urteko Plana onestea. Planaren edukia, agindu honekin batera doazen eranskin hauetan zehazten da:

Resulta necesario en este punto, por una parte, adecuar y modificar diversos aspectos contenidos en el anexo de la Orden de 30 de enero de 2024, citada, por la que se aprueba el Plan Estratégico de Subvenciones del Departamento de Salud para el periodo 2024-2028, publicando un nuevo texto de su anexo. Por otra parte, resulta preciso aprobar el Plan Anual de Subvenciones correspondiente al actual ejercicio 2026 que siga los criterios establecidos en aquel anexo y en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el año 2026.

Por todo lo expuesto y en virtud de las competencias otorgadas por el Decreto 18/2020, de 6 de septiembre, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, y en relación con el Decreto 319/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Salud,

ORDENO:

Primero.— Modificar el anexo de la Orden de 30 de enero de 2024, de la Consejera de Salud, por la que se aprueba el Plan Estratégico de Subvenciones del Departamento de Salud para el periodo 2024-2028, con el contenido del anexo a la presente orden.

Segundo.— Aprobar el Plan Anual de Subvenciones del Departamento de Salud del ejercicio 2026 cuyo contenido se detalla en los siguientes anexos contenidos en el documento que acompaña a la presente orden:



I. eranskina.- *Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak:* Helburuak, ekintzak eta adierazleak.

Anexo I.-*Ejes Estratégicos y Líneas subvencionales:* Objetivos, acciones e indicadores.

II. eranskina.- *Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak:* Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko.

Anexo II.-*Ejes Estratégicos y Líneas subvencionales:* Compromisos presupuestarios y porcentaje de financiación respecto del global de financiación pública.

III. eranskina.- *Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak:* Sektore hartzailea(k) eta dirulaguntza emateko prozedura.

Anexo III.-*Ejes Estratégicos y Líneas subvencionales:* Sector o sectores a los que se dirigen y procedimiento de concesión.

Hirugarrena.- Agindu hau Osasun Sailaren webgunean argitaratzea, publikotasuna emateko. Aplikagarri izango zaio, halaber, informazioaren eta gardentasunaren arloan, aurreikusten den beste edozein xedapen.

Tercero.- Dar publicidad a la presente orden mediante su inserción en la página web del Departamento de Salud, siéndole de aplicación asimismo cualesquiera otras disposiciones en materia de información y transparencia jurídicamente previstas.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren data
En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de su firma electrónica

Alberto Martínez Ruiz
Osasuneko sailburua/consejero de Salud